

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 11koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zuzendariarena; haren bidez, Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialetarako nazioartekotasunaren aitortpena lortzeko Protokoloa (Unibasqeko Aholku Batzordeak 2019ko urtarrilaren 10ean onartua) ematen da argitara.

GRADU ETA MASTERREKO UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIALETARAKO NAZIOARTEKOTASUNAREN AITORTPEN AITORTZEKO PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

1. ERREFERENTZIA ESPARRUA	1
2. XEDEA ETA NORAINOKOA	2
3. UNIBERTSITATE-TITULU/IBILBIDE OFIZIALEN NAZIOARTEKOTASUNA EBALUATU ETA AITORTZEKO PROZEDURA	3
4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	4

1. ERREFERENTZIA ESPARRUA

Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoa irakaskuntza eta unibertsitate-titulu ofizialen egitura berria ezartzen du.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 48. artikulua eta Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainaren 28ko 13/2012 Legeak Unibasqen esku uzten dute Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala duten unibertsitateen titulazioak ebaluatzeko eskumena.

Unibertsitate-ikasketa ofizialen antolaketa ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 25. artikulua ezartzen du Unibertsitate Kontseiluak unibertsitate-titulazio bat ezartzeko proposamenaren aldeko edo aurkako ebazpena emango duela, dagokion ebaluazio-organoak titulazioaren ikasketa-plana ebaluatu ondoren.

Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuak dio Euskal Autonomia Erkidegoko gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialak definitzerakoan eta antolatzerakoan men egin beharko zaiela Goi Hezkuntzako Europar Eremua funtsatzen eta gobernatzen duten printzipio eta irizpideei. Esparru horren oinarritzko xedeak hauxe behar du izan: Euskal Autonomia Erkidegoaren beharrizan sozioekonomikoei erantzun egokia emateko moduan egongo den eta gaitasun-maila handia izango duen giza kapitala prestatzea. Beste alde batetik, aintzat hartu behar ditu euskal hezkuntza-sistemaren bereizgarritasunak eta indarguneak, eta euskal gizartearenak eta, oro har, europar gizartearenak ere bai.

Abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren 4. artikulua dio Euskal Autonomia Erkidegoko gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialen eskaintza zenbait kategoriatan banatuko dela, hots, oinarritzko maila, tartekoa eta aurreratuan, honako bektore hauen arabera: metodo eta metodologia berritzaileetan oinarritutako prestakuntza, nazioartekotasuna, eta enpresa, instituzio eta beste erakunde batzuekiko harremanak, gizartea jakitunago egon dadin Euskal Unibertsitate Sistemaren ezaugarriez.

Gradu eta Masterreko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak kategorizatzen dituen Hezkuntza sailburuaren 2018ko uztailaren 27ko Aginduaren helburua da oinarritzko eta tarteko mailan eta maila aurreratuan kategorizatzea Euskal Unibertsitate Sistemaren eskaintzen diren unibertsitate-irakaskuntza ofizialak, helburu hartuta gizarteari informazio zabalagoa ematea Euskal Unibertsitate Sistemaren ezaugarriei buruz.

Bestalde, Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuak ezartzen du Unibasqek irakaskuntzen kategorizaziorako protokoloak eta prozedurak garatu eta publiko egingo dituela lehendik aipatutako bektoreen arabera.

Indarrean dagoen araudi horretan guztian eta E4 Taldeak (European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA), European Students' Union (ESU), European University Association (EUA) eta European Association of Institutions in Higher Education (EURASHE) entitateek) Education International (EI), BUSINESSEUROPE eta European Quality Assurance Register of Higher Education (EQAR) entitateekin batera landutako Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan kalitatea bermatzeko irizpide eta jarraibideetan oinarrituta, Agentziaren Aholku Batzordeak Protokolo hau onartzeko erabakia hartu zuen 2019ko urtarrilaren 10eko bilkuran, Euskadiko Gradu eta Masterreko titulazio ofizialetan "nazioartekoa" aipamena lortzeko prozedura eta betekizunak ezartzeko.

2. XEDEA ETA NORAINOKOA

"Nazioartekoa" aipamenaren aitortzea titulazio osora edo haren ibilbide batera zabaltzeko ahal izango da. Lehen kasuan, protokolo honetan zehaztutako betekizunak titulazio osoak bete behar ditu. Bigarrenetan, berriz, ibilbideak bakarrik beteko ditu.

Era berean, ikasleek beren tituluaren gehigarri europarrean "nazioartekoa" aipamena gaineratzeko bete behar dituzten baldintzak bilduko dira protokolo honetan. Aipamena titulazio osora hedatzen bada, baliteke ikasle guztiak ez betetzea beren gehigarrian "nazioartekoa" aipamena gaineratzeko eskatzen diren betekizunak. Ibilbide batera hedatzen bada, ordea, egresatutako ikasle guztiak bete beharko dituzte betekizun horiek; bestela, ibilbideak aipamena galduko du.

Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatuta dauden Euskal Unibertsitate Sistemako graduak eta masterreko titulu ofizial guztiak lortu ahal izango dute, nahi izanez gero, "nazioartekoa" aipamena.

Euskal Autonomia Erkidegoko eskumen-eremuko unibertsitateen RUCTean inskribatutako titulazio ofizialek “nazioartekoa” aipamena lortzeko betekizunak ezartzen ditu Protokolo honek. Unibertsitateen kasuan, Unibertsitatearen eta Agentziaren artean egingo den eta ebaluazio hori kontuan hartu eta garatuko duen hitzarmen baten esparruan aplikatu ahal izango da Protokolo hau.

3. UNIBERTSITATE-TITULU/IBILBIDE OFIZIALEN NAZIOARTEKOTASUNA EBALUATU ETA AITORTZEKO PROZEDURA

3.1. Eskaera Unibasqen jasotzea

Unibertsitateek I. Eranskinaren araberrako eskaera bat aurkeztuko dute “nazioartekoa” aipamena lortu nahi duen titulu edo ibilbide bakoitzerako, protokolo honetan ezarritako ebaluazio-irizpideei eta ebidentziei jarraikiz.

Unibasqen deialdian eskaera ofiziala aurkezteko prozesua zehaztuko da.

3.2. Unibasqek txostena egitea

Unibasqek txosten bat egingo du eskaera bakoitzeko. Horretarako, Protokolo honetan zehaztutako irizpideei jarraituko die.

Ikasketa-planaren ebaluazioa Unibasqen Bektoreak Ebaluatzeko Batzordeak egingo du, eta jakintzaren hainbat adarretako ospe handiko adituez (horien artean atzerriko unibertsitate bateko pertsona bat), profil profesionaleko pertsona batez eta ikasle batez osatuta egongo da batzorde hori. Ebaluazio Batzordeen jardunek Unibasqek bere Etika eta Eskubide Kodean eta dokumentu honek biltzen dituen barne-prozedurako arauetan ezarritako argibideei jarraituko diete.

Unibasqen Bektoreak Ebaluatzeko Batzordeak txosten-proposamen arrazoitu bat egingo du, eta aitortenaren aldeko edo aurkako iritzia agertuko du bertan. Azken kasu horretan, aldeko txostena lortzeko alegazio-epearen barruan nahitaez aldatu beharreko alderdiak adierazi ahal izango dira. Txosten-proposamen hori Unibertsitatera bidaliko da, 20 egun naturaleko epean alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Epea amaitu eta, hala badagokio, alegazioak balioetsi ondoren, Unibasqek behin betiko ebaluazio-txostena egingo du (aldekkoa edo aurkakoa), eta unibertsitate eskatzaileari eta Eusko Jaurlaritzari igorriko die. Aldekkoa denean, hobetzeko gomendioak eta unibertsitateak aitortenari eusteko hartu beharreko konpromisoak adierazi ahal izango dira. Gomendio horiek titulazioaren egiaztapena egiaztatu, berritu edo haren jarraipena egitean emandako gainerako gomendioak bezala izapidetuko dira.

Txostena 6 hilabeteko epean egingo da gehienez, ebaluazioa egiteko beharrezkoa den dokumentazio guztiaren sarrera-datatik aurrera zenbatzen hasita. Adierazitako epean esanbidezko ebazpenik ez badago, eskaera ezetsizat hartuko da.

3.3. Ebaluazio-prozesuaren emaitza eta jarraipena

Tituluak edo ibilbideak “nazioartekoa” aipamena lortzen badu, Unibertsitateak nazioartetasun-aitorpen hori protokolo honetan adierazitako betekizunak bete dituen ikaslearen tituluaren gehigarrian txertatu ahal izango du. Halaber, “nazioartekoa” aipamena daukala edota nazioartekotasun-ibilbide bat biltzen duela jaso ahal izango du tituluari buruzko informazio publikoan eta titulua zabaltzeko jardueretan. Azken kasu horretan, tituluaren zabalkundearen esplizituki adierazi beharko dira ibilbidearen izen espezifikoak eta haren plaza kopurua.

Tituluaren egiaztapenaren jarraipena egitean edo egiaztapen hori berritzean, ezarpenean gertatutako gorabeheren eta hobekuntzen berri eman beharko zaio Unibasqi, eta ebaluazio-batzordeek edo bisita-panelek bidezko hartzen duten informazio gehigarria jaso ahal izango du Agentziak. Egiaztapenaren jarraipena egitean edo egiaztapen hori berritzean tituluak aitortzea lortzeko beharrezkoak diren betekizunak dagoeneko betetzen ez dituela edo ebaluazio-txostenean bildutako konpromisoak ez direla bete ikusten bada, Agentziak aitortzea kendu ahal izango du Batzordeak bidezko hartzen badu. Nolanahi ere, Unibertsitateak bidezko hartzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu 20 eguneko epean, aitortzea lortzeko betekizunak dagoeneko betetzen ez direla adierazteko Agentziak igortzen dion jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera zenbatzen hasita. Alegazioak aztertu ondoren, aipamena kentzeari edo ez kentzeari buruzko behin betiko erabakia hartuko du Batzordeak. Aipamena kenduz gero, automatikoki ekarriko du aipamena tituluaren gehigarrian ezin sartu izatea, eta ezin izango da erabili “nazioartekoa” adierazpena tituluari edo eraginpeko ibilbideari buruzko informazioan eta zabalkunde publikoan.

4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proposamenen ebaluazioa egiteko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Tituluaren deskribapena

Atal honetan, nazioartekotasun titulu edo ibilbideko ikasleentzat dauden plazen kopurua adierazi behar da, eta Unibertsitateak bermatu behar du ikasle guztiak hartzeko behar adina baliabide dituela.

Unibertsitateak agerian utziko du titulazioan edo ibilbidean matrikulatutako ikasleen % 10 gutxienez nazioarteko mugikortasun-programen bitartez hartuak izan direla edo atzeritarrak direla. Nazioarteko mugikortasun-programa batetik datorren edo atzeritarra den ikasle bat hainbat titulazioen irakasgaitan matrikulatzen bada, ECTS gehien dituen titulazioan bakarrik egingo da zenbaketa.

Titulazio baten nazioartekotasuna aitortzeko, ikasleen % 20k gutxienez nazioarteko mugikortasun-programetan parte hartu behar dute. Bestalde, titulazioak beharrezkoak diren hitzarmenak bermatu behar ditu irakasleri osoa mugikortasun aukera hori izan dezala. Ibilbide baten nazioartekotasuna aitortzeko, bertako ikasle guztiek hartu behar dute parte programa mota horietan.

2. Titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-planaren justifikazioa

Atal honetan, nazioartekotasunak tituluko konpetentzia batzuk garatzeko duen interesa eta garrantzia justifikatu behar dira.

Aipamena lortzeko, helburuak argi eta garbi identifikatzen dituen nazioartekotasun-estrategia bat egotea ezinbestekoa da. Helburu horiek Zentroaren edo titulazioaren plan estrategikoan edo kudeaketa-planean sartu behar dira, eta neurketa-adierazleak eta beren helmuga-balioak bildu behar dituzte.

Horretarako, nazioartekotasun-estrategia gauzatu eta koordinatuko duen Batzorde operatibo bat egotea beharrezkoa da, eta batzorde horretan gutxienez ere atzerriko unibertsitate bateko ospe handiko pertsona akademiko bat egongo da. Detektatutako gorabeheren azterketa eta ikasleen jarraipena egin beharko da. Egiatapenaren jarraipena egiten den eta egiatapena berritzen den bitartean, batzorde horren bileretako aktak eskatu ahal izango dira.

3. Konpetentziak

Titulazioaren ezarpenaren antolaketa eta garapenean nazioartekotasun-ekintzen integrazioa beharrezkoa da titulaziorako edo ibilbiderako ezarritako konpetentziak garatzeko.

4. Ikasleen sarbidea eta onarpena

Titulura/ibilbidera sartzeko bideak eta betekizunak adierazi behar dira, gomendatutako sarrera-profila barne, zeinak publikoa izan behar duen ikasturte bakoitza hasi baino lehen.

Titulurako/ibilbiderako aurreikusitako ekintza espezifikokoak aipatu behar dira, horien helburua matrikulatuta daudenean ikasleei laguntza eta orientazioa ematea baldin bada.

5. Irakaskuntzen plangintza

Unibertsitateak mugikortasun-programak, hirugarren hizkuntzen eskaintza, eta 2. irizpidean azaldutako parametroen arabera definitutako nazioartekotasun-estrategia gauzatu eta koordinatuko duen Batzorde operatibo bat eduki behar ditu.

Curriculum-antolaketak, irakaskuntza-koordinazioak eta ebaluazioak atzerriko unibertsitateekin lankidetzan titulazioak antolatzea ahalbidetu behar dute Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruaren testuinguruan edo

nazioartekotasun-ekintzen integrazioari erantzunak ematen dizkioten beste nazioarteko testuinguru batzuetan.

Atal honetan honako alderdi hauek balioetsiko dira:

- ✓ programaren gaitasunek nazioarteko inguruneetan garapen profesionala nola errazten duten,
- ✓ nazioarteko interes-taldeei zuzendutako programari buruzko informazio publikoa (programak publiko jakin bati zuzendutako atzerriko hizkuntza batean egon behar du),
- ✓ Euskadin ofizialak diren hizkuntzez bestelako hizkuntza batean eman beharko da irakaskuntza,
- ✓ beste herrialde batzuetako enpresa edo erakundeetan praktikak egiteko posibilitatea,
- ✓ programak nazioartekotutako egiturarik ba ote duen (baterako programak, irakasgai partekatutak, kudeaketa-organo komunak eta beste batzuk),
- ✓ irakasleen mugikortasun eta trukerako dauden nazioarteko hitzarmenak,
- ✓ mugikortasunerako laguntza-sistema, mugikortasuna sustatzeko hitzarmenak egotea, mugikortasunerako aholkularitza, beste unibertsitate batzuetatik datozen ikasleen harrera egitea,

Tituluak Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren hizkuntzetan eskaini behar du irakaskuntza, guztizko kredituen % 20aren baliokidea den gutxieneko portzentaje batean Graduaren kasuan, edo guztizko kredituen % 30aren baliokidea den gutxieneko portzentaje batean Masterraren kasuan, titulazioak edo ibilbideak aipamena lortu ahal izateko.

Nolanahi ere, ikasleak bere tituluaren gehigarri europarrean "nazioartekoa" aipamena gaineratu ahal izateko, gutxienez ere ECTS-en % 25 hirugarren hizkuntza ez ofizial batean gainditu beharko du Graduaren kasuan, eta ECTS-en % 50 Masterraren kasuan, Gradu/Master Amaierako Lana barnean hartuz, eta gainera gutxienez ere 30 ECTS gainditu beharko ditu nazioarteko mugikortasun-programetan.

6. Langile akademikoak

Unibertsitateak titulazioaren edo ibilbidearen irakasleen Curriculum Vitaeak aurkeztu beharko ditu.

Balioetsiko da prestakuntza-programaren irakasleek nazioarteko esperientzia akademikoa izatea eta sareetan parte hartzea, ezarritako nazioartekotasun-helburuen lorpenean benetan lagundu ahal izateko moduan.

Irakasleek C1 egiaztapena edo baliokidea izan behar dute, irakaskuntza % 20aren baliokidea den gutxieneko portzentaje batean ofiziala ez den hizkuntza batean emateko.

Aurrekoaz gain, gutxienez ere irakasleen % 20k ondorengo baldintzaren bat betetzen dute azken hamar urteetan:

- ✓ Atzerriko unibertsitateetan egindako irakasleen prestakuntza (gradua, masterra, doktoregoa).
- ✓ Egonaldiak atzerriko unibertsitateetan eta ikerketa-zentroetan.
- ✓ Nazioarteko erakunderen batek emandako ikerketa-proiektuetan parte hartzea, eta atzerriko unibertsitate eta ikerketa-zentroetako kideez osatutako taldeetan parte hartzea.
- ✓ Programan irakaskuntza ematen duten atzerriko irakasleak.
- ✓ Programan irakaskuntza ematen duten atzerriko unibertsitateetako irakasleak.
- ✓ Irakasleen jarduna irakaskuntza-lankidetzako eta ikerketako nazioarteko sareetan.
- ✓ Mugikortasunerako dauden nazioarteko hitzarmenak erabili dituzten pertsonak/irakasle eta ikertzaileen portzentajea.

7. Baliabide materialak eta zerbitzuak

Nazioarteko ikasleei arreta eskaintzeko (webguneko informazioa ingelesez, atzerriko ikasleari arreta eskaintzeko behar adinako hizkuntza-eskakizuna duten administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta abar) behar adinako baliabide materialak eta giza baliabideak eskura daudela egiaztatu beharko da.

8. Aurreikusitako emaitzak

Atal honetan, ez dago irizpide espezifikorik nazioarteko aipamenerako.

9. Kalitatea bermatzeko sistema

Nazioartekotasunari lotutako prozedurak aurkeztuko dira, baita titulazioaren diseinu eta plangintzari eta bere jarraipen eta ezarpenari lotuta daudenak ere. Mugikortasun-programen bitartez harrera egin zaien ikasleen gogobetetasunaren neurketa barnean hartu beharko dute, eta beharrezan identifikazioa ahalbidetu beharko dute, aurreko emaitzen arabera hobekuntza-ekintzak planteatzeko. Era berean, hizkuntzen jakite-maila ziurtatzen duten mekanismoak bildu beharko dira.

Mugikortasunean harrera egin zaien ikasleen gogobetetze-mailak gutxienez ere 10etik 7koa izan behar du. Eskaera berriko kasuetan, gutxienez ere galdeketa-eredu bat aurkeztu beharko da eta titulazioa/ibilbidea ikasten ari diren

ikasle bisitariari emateko konpromisoa hartu beharko da.

10. Eskola-egutegia.

Atal honetan, ez dago irizpide espezifikorik nazioarteko aipamenerako.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 11.

Eva Ferreira García
Unibasqeko Zuzendaria